

# COVID-19 BIRUSARI AURRE EGITEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN GIDA

ZURE NEGOZIOAK KORONABIRUSAREN ERAGINEZ  
INPAKTO MINIMOA IZAN DEZAN AUTONOMOEI ETA  
ENPRESEI ZUZENDUTAKO NEURRI EKONOMIKOEI  
BURUZ JAKIN BEHAR DUZUN GUZTIA.



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN

# ERAGILE SARE BAT ELKARLANEAN ZURI LAGUNTZEKO PREST



#etxeangeratu joera nagusia da COVID-19 garaietan, eta mugimendu sozial oro lez, ziur zu ere gertutik bizitzen ari zarela. Agian, txikiak egun osoan etxetik bueltaka dituzulako, edo tokatzen zaigun kasuan bezala, autonomia zarelako edo enpresa bat kudeatzen duzulako.

Zutaz kezkatzen gara. Badakigu zer-nolako esfortzua burutzen duzun egunero Gipuzkoako ekonomian zure alea jartzeko. Eta zutaz kezkatzen garenez, Gipuzkoako Foru Aldundian zugandik gertu egon nahi dugu, zurekin prestatu nahi gara orain, etorkizunera begira indarturik ateratzeko

Horregatik, Aldunditik, lurraldeko eragile ezberdinekin lanean jarri gara. Elkarlanean, krisialdi egoera honen inpaktua gutxituko duen plan bat garatzea lortu dugu zure ongizatea bermatze aldera, eta, horrekin, zuretzat garrantzitsua den jendearena ere bai. Guztiok batera une hau gainditzea lortuko dugu, eta hau gertatzean, ekonomiarentzako neurri pizgarriak hartuko ditugu jarduera ekonomikoa eta enplegua berraktibatzeke, laburbilduz, zure negozioak aurrera egiteko.

Jarraian, zuretzat prestatu duguna aztertzeraz gonbidatzen zaitugu, egoera honetan lagungarri eta euskarri bezala baliagarri izango den gida. Aurrera!



## AUTONOMOA NAIZ



Autonomia zara, asteak aurrera doaz zure lana aurrera ateratzeko etxetik irten ezinik, eta egoera hau zure negozioan eragiten ari da. Nola informa zaitezke eskuragarri dituzun laguntzen inguruan? EGIN KLIK irudiaren gainean eta zuretzat prestatu dugun atalera iritsiko zara. **Bertan informazio guztia kontsultatu ahal izango duzu.**






Errazago izan dezazun, informazio guztia lau akzio esparrutan sailkatu dugu: osasun laborala, arlo laborala, laguntza publikoak eta zerga-arloa. EGIN KLIK interesatzen zaizunaren gainean informazio zehatzagoa jasotzeko.

**Osasun laborala****Arlo laborala****Laguntza publikoak****Zerga-arloa**

## ENPRESA BATEKO ARDURADUNA EDO LANGILEA NAIZ



Enpresa baten arduraduna edo bertako langilea baldin bazara, horrek duen tamaina duela, eta argibideak behar badituzu, EGIN KLIK irudiaren gainean eta beharrezkoa duzun informazio guztia aurkituko duzu.




## ENPRESA BATEKO ARDURADUNA EDO LANGILEA NAIZ



Errazago izan dezazun, informazio guztia lau akzio esparrutan sailkatu dugu: osasun laborala, arlo laborala, laguntza publikoak eta zerga-arloa. EGIN KLIK zure beharrianetara hobekien egokitzen denaren gainean.

**Osasun laborala**



**Arlo laborala**



**Laguntza publikoak**



**Zerga-arloa**





Gipuzkoako Foru Aldundiak eskuragarri jartzen dizu beharrezkoa duzun informazio guztia; baina Aldundira hurbildubeharzaratramiteakegin edozalantzak argitzera? Ez. Zugandik ahalik eta hurbilen egoteko, lurralde osoan zehar banatuta dauden eragile ezberdinekin laguntza emateko sare kolaboratibo bat eraiki dugu. Mapa honetan ikusiko duzu non kokatzen diren zuretzat lagungarriak izan daitezkeen eragileak, eta informazioa osatu nahi baduzu, EGIN KLIK eta jarri harremanetan gertuen duzun entitate horrekin.



## ZER ZALANTZA IZAN DITZAKET?



Egunero, orduro, enpresa arduradun, autonomo edota askotariko sektoretako profesionalen zalantzak jasotzen ari gara, ziur asko zuk izango dituzunen antzekoak. Gehien errepikatzen direnak jaso ditugu eta erantzun bateratu bat eman diegu, zalantza orokorrak argitu ahal izateko.

EGIN KLIK irudian eta topatu zure erantzunak.

